



## 'TOLOSALDETIK KANPORA BIZIKLETAZ'

Goieritik barrena egingo dugu oraingoan 40 kilometroko itzulia; Larraitz izango da punturik altuena » 6

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2010-06-19

VIII. URTEA 2.031. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Ekainaren 29ko greba orokorraren arrazoiak argitu dituzte LAB eta ELAk

**EKONOMIA** Eskualdeko langile, eta oro har herritarrei, mobilizazioetan parte hartzeko eskatu diete sindikatuek

**ERREFORMA** «Eztabaida demokratikoa ekidin nahi izan dute, langileon eskubideak merkantzia huts bilakatuz» 3



Beñat Gaztelumendi, bertsolaria, eta Josune Zabala, Mintzola Fundazioko zuzendaria, aurkezpenean. A. BELAUNZARAN

## EUSKAL KULTURAKO HAINBAT ADITU 'AHOA BETE HOTS'

**VILLABONA** Mintzola Fundazioak eta Bertsozale Elkarreak antolatute ahozkotasanaren inguruko jardunaldia, uztailaren 22tik 24ra 5

## Tolosako Sanjoanetako egitarau guztia, zehatz-mehatz, gaurko zenbakian

**JAIK** Ospakizunekin gaur hasiko baldin badira ere, ofizialki San Joan Jaiak hilaren 23an hasiko dira; 18:30ean botako dute suziria udaletxetik 4



HITZA

**MIREN GONZALEZ** ARTISTA

«Kartzela handi bat bezalakoa da Mendebaldeko Sahara»

**GIZARTEA** Margolari tolosarrak bertan bitakoa artearekin «adierazteko beharra» sentitzen du 2

live7  
EUSKARAZ

Windows 7 eta Live euskaraz doan deskargatzeko aukera:  
[www.euskara.euskadi.net/euskara\\_soft](http://www.euskara.euskadi.net/euskara_soft)

# «Saharan bizitakoa artearekin adieraziko dut»

MIREN GONZALEZ » Artista

**Gizartea** » Mendebaldeko Saharan izan da artista tolosarra, Euskal Fondoak gonbidatuta; han ikusitakoa kontatzea du orain xede.

INIGO TERRADILLOS

Euskal Fondoaren ekimenez, Marokok okupaturiko Mendebaldeko Saharan izan berri dira Miren Gonzalez artista tolosarra eta Joseba Apaolaza aktore urretxuarra. Eurekin batera Itziar Iturri Euskal Fondoako Saharako koordinazio saileko arduradunak egin du bidaia. Ekimen honen helburua Euskal Herriko pertsonaia ezagunek Mendebaldeko Sahara bisitatzeara eta ezagutzeara da, ondoren han ikusitakoaren berri gurean emateko.

## Nolako esperientzia izan da?

Gisa honetako lehendabiziko esperientzia izan da niretzat. Polita izan da, betidanik izan baitut goa artea eta gizartea batzeko, be-



Itziar Iturri, Esbai, Miren Gonzalez eta Joseba Apaolaza, Saharan. HITZA

raz, oso gustura nago. Gainera, sahararrei laguntzeko aukera izango dugu, beraz, oso kontentu nago.

## Orain, han ikusi eta bizitu duzue-na kontatzea dagokizue.

Bidaia honekin sentitu dudana, bertan bizitakoa eta hangotarrek sentitzen dutena plastikoki espre-satzeko asmoa dut, eta horretan

hasi naiz lanean. *Larrialdia* izena jarri diot ekimenari, eta orain laguntzak eskatzen ari naiz, batetik proiektua lantzeko, eta bestetik, erakusgai jartzeko lekua finkatzeko.

## Nolako lana izango da?

Koloreekin egingo dut jokoa. Saharako paisaia horixka da, eta Ma-

rokorena, berriz, gorrixka, beraz, kolore horiek erabiliko ditut, batik bat. Saharako kolorea gorri bilakatzeko saiakera ugari egin ditut Marokok. Esaterako, 2007an Aaiun hiria gorritz margotzeko agindu zuen, boterea nork duen argi uzteko. Inbasioa, martxa berdea, martxa beltza, bihotz beltzak... ideia horiekin ere egingo dut lan.

## Mendebaldeko Sahara eginiko bidaiaz zer aipatuko zenuke?

Batetik, nahasmen txiki bat dagoe-lan hemen esango nuke, izan ere, jendeari Saharan egon garela esanda errefuxiatuen kanpalekutan izan garelaluzten du, eta Marokok okupaturiko lurraldean egon garela esplikatu beharra izan diogu askori. Mendebaldeko Saharan %10 baino ez direla sahararrik ikusi dugu, gainerako guztiak marokoarrak dira Marokoko Gobernua bultzatuta lurraldea inbaditzaera joanak.

## Eta nola bizi dira han?

Guk ez genuen horrelako zerbitu

imajinatzen. Poliziak hartua du lurraldea, eta gu uneoro jarraituak eta zelatatuak izan gara. Urduritasunez egon gara. Gurekin han Sahararen giza eskubideen aldeko ekintzaileak izan dira, eta bidaia osoan zaindu gaituzte eta euren bizimodua erakutsi digute. Kartzela handi bat bezalakoa da Mendebaldeko Sahara, ez baitute ia eskubiderik eta errepresio handia bizi dute gaztetxoenetatik hasita, gainera. Torturen lekukotza izugarriak ezagutu ahal izan ditugu. Sahararrek debekatuta dute biltzea eta ekitaldiak antolatzea; pentsa aske utzi dituzten ekintzaile saharar batzuei ongietorria egin nahi zieten, eta eurekin joateko eskatu egon garela esplikatu beharra izan ziguten, horrela poliziak traba gutxiago jarriko zizkielako. Bestalde, Sahara zoragarria da, eta izugarriko pena ematen du gatazkarengatik ezin dutela euren lurrez gozatu ikustea. Han gertatzen dena mundu guztian jakiteko behar handia sentitzen dute, izan ere, gutxi dira, eta ia bakarrik daude.

## Solstizio kontzertua Et Incarnatus orkestraren eskutik, datorren asteartean

**Kultura** » Urkizun, Iraolako Zuloa deiturikoan, izango da, 19:30ean; ondoren, jatekoa eta edatekoa banatuko dute.

ERREDAKZIOA

Aretoetatik eta herrigunetik urrun, natura eskenatoki soil bilakatzuz, Et Incarnatus orkestrak udako solstizioa dela eta, azken urteetako ohiturari jarraipena emar-



Pasa den urtean egin zuten emanaldiaren une bat. JOXEMI SAIZAR

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Peñiscola.** Etxebizitza alokatzen da. Abuztuaren 16tik aurrera. Itsas ertzean. Pizsinak, toboganak, tenis zelaia... 943 65 42 44 / 690 06 76 45.

■ **Peñiscola.** 7 pertsonentzako egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean, bal-koia, aire egokituia, igogailua, apartakalea eta bi igerileku. Informazio gehiagorako 617 42 89 52.

### SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Alde Zaharrean 50 m<sup>2</sup>ko atikoa salgai. Egoera onean, oso argitsua. Igo-gailua badu. 141.839 euro (23.600.000). Interesatuek deitu

943 43 00 20 zenbakira. Zuzeneko salmenta.

■ **Etxebizitza.** Tolosako Berazubi auzoan etxebizitza salgai. 4. solairua, igogailuarekin eta sotoarekin. Gela guztiak kanpoaldera. Interesatuek deitu 679 44 05 27 zenbakira.

■ **Garajea.** Orioko hondartza ondoan, garaje itxia salgai. Modu onean. Interesatuek deitu 605 74 26 96 zenbakira.

### BESTERIK

■ **Pisukide bila.** Pertsona bat behar da pisua konpartitzeko Tolosan. Oso leku onean dago, eta prezio onean. Interesatuek deitu 627 98 53 76 zenbakira.

nez, kontzertua eskainiko du datorren asteartean, hilaren 22an. Aurriko hamar urteetan egin bezala, Urkizu auzoan izango da emanaldia, Mendikuterren magaleko beluze eta pagadiez inguratutako Iraolako Zuloa izeneko lekuan (telekomunikazio antenaren pean). 19:30ean hasiko da saioa Miguel Zeberio tolosarraren gidaritzapean, eta hori amaitzean bertan mokatutxo hartzeko aukera izango da, jatekoa eta edatekoa eskainiko baitute gerturatzen den ororentzat.

Emanaldi hau kokapenak egingo du, batez ere, berezi. Lehen urteetan Uzturre aukeratu zuten kontzertua emateko baina azkenik Iraolako Zuloa finkatu dute eskenatoki bezala «txokoak merezi duelako».

### Bertara iristeko

Tolosatik oinez joaten bagara, Urkizura doazen bideek, Soldadu kalea eta San Esteban auzotik dute irteera. Behin Urkizun gaudela, Erniera doan bideari jarraitu beharko zaio, eta han telekomuni-

kazio antenari erreparatu beharko zaio.

Autoz bagoaz, berriz, Azpeitira doan errepidea hartu beharko dugu, eta bidegurutzean eskuineko bidea hartu, Urkizura doana. Ermita eta tabernak osatzen duten kaskotxoraino jarraitu beharko da, eta bideari jarraituz, eskuinera irteetan den bigarren pista hartu, or-migoizkoa, telekomunikazio antenaren oinarria ailegatzeko. Dena den, Et Incarnatus orkestratik, Urkizutik oinez bertaratzea gomendatzen dute.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltsuak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

# ELA eta LAB sindikatuek 29ko greba orokorrerako deialdia luzatu dute

**Ekonomia** » Egun horretako mobilizazioetan parte hartzera gonbidatu dute; erreformaren ondorioak salatu dituzte.

ALEX AREIZAGA/GOIERRIKO HITZA

ELA eta LAB sindikatuek ekainaren 29an greba orokorra egiteko deia egin dute Tolosaldean ere. Espainiako Gobernuak ezarri nahi duen lan erreformaren aurka protesta egiteko deitu dute greba.

ELA sindikatuko Egoitz Iturbek eta LAB sindikatuko Josu Amenaabarrek eta Oihana Lopetegik hitz egin zuten atzoko agerraldian. Haien esanetan, langileen eskubideetan «atzerapausoa» ekarriko du lan erreformak. «Negozio-dio kolektiboari eraso egiten dio eta adoste bidean jarraitu duten elkarriketa prozesua onartezina izan da».

Erreforma ekainera arte luzatu izana ere «desmobilizatzeko helburuz» egin dutela salatu dute. «Eztabaida demokratikoa ekidin nahiz izan dute, langileen eskubideak merkantzia huts bilakatuz».



ELA eta LAB sindikatuetako ordezkariak atzo Uretxun. ALEX AREIZAGA

## Aldaketa ugari

Erreformak «kaleratze guztiak objektibo bihurtzen» dituela nabarmendu dute sindikatuetatik. «Lehen enpresak arrazoi batzuk eman behar zituen, egoera zehatz bat gainditzeko kaleratzeak beharrezkoak zirela argudiatuz. Orain arrazoi horiek malgutu egin dira, galera dituen edozein enpresak, galera hutsak argudiatuz, egin ahal izango ditu kaleratze objektiboak. Aurretiazko abisua 30 egunetik

15era gutxituko da gainera». Kontratazio sistema berriaz ere aritu ziren. «Lanaren Sustapenerako Kontratazioak arlo guztiara zabaldu dituzte eta horietan izaten diren kaleratze desegokietan kalte-ordaina 33 eguneko da, lehen 45ekoa zen bitartean». Kaleratze desegokiak, hala ere, «gutxi» izango diren ustea agertu dute, «erreformak kaleratze objektiboak egiteko erraztasun handiak ematen dituelako».

## Kaleratzea diruz lagundua

Lan erreformak langilea kalera-tzea «diruz laguntzen» duela ere salatu dute langileen ordezkariak. «Neurri berriekin Fogasak (Soldadak Bermatzeko Funtsa) urteko 8 eguneko kalte-ordainak ordaintzeko diru laguntza emango du kaleratzeetan, eta enpresariak 12 egun soilik ordaindu beharko ditu, 20 egun ordaindu beharrean». Horrez gain, kaleratzei aurre egiteko «kapitalizazio funtsaren so-

rrera» ere salatu dute. «Langileek eta enpresariak funts bat sortu beharko dute, ondoren langileek euren kaleratzeak diruz laguntzeko; hau da, langileak dirua sartu beharko du funts horretan, ondoren etor daitekeen bere kaleratzea ordaintzeko. Kaleratzeak debalde aterako dira, azken batean». Sindikatuetakordezkariak hitzetan, galera dituzten enpresak erraztasun handiak izango dituzte hitzarmenen azpitiko soldadak ordaintzeko eta langileen lan baldintzak aldatzeko lehen zegoen prozesua ere malgutu egingo dute. «Lan ordinetan edo erreleboetan aldaketak egiteko malgutasun handiagoa izango dute, alderdi sozialarekin egon beharrik gabe».

Sindikatuaren esanetan, erreformak aldi baterako laneko enpresak «sektore guztietan» sartu ahal izatea ekarriko du, «baita administrazioan ere, lehen pentsaezina zena». Lan erregulazio espedienteak ere «erraztu» egingo dituela diote sindikatuek, «enpresak eman beharreko baldintzak malgutu egingo baititu». Lan erreforma oraindik parlamentutik igaro behar dela gogoratu dute sindikatuek, eta zapi horretan «okerre-ra» joko duela aurreikusit dute, «alderdi politikoetatik eta patronaletik hori eskatzen ari baitira».

Azkenik, ekainaren 29ko mobilizazioetan parte hartzeko deialdia luzatu dute.

## 'Azeriaren alegia' Topic-en

ERREDAKZIOA

Los Titiriteros de Binefar taldeak *Azeriaren alegia* lana eskainiko du gaur Tolosako Topic Zentroan. Emanaldia euskaraz izango da eta 18:00etan hasiko da. Helduek 7 euro ordaindu beharko dute eta haurrek 4. Familia guztiarentzat egokia da ikuskizuna, Topic-etik azaldu dutenez.

*Azeriaren alegia* ikuskizunarekin, sari ugari irabazi dituzte Aragoiko txotxongilolariek. Gazte eta

haurrei zuzenduriko antzerki onenaren nazio mailako saria horien artean.

## Gizakia eta natura

Topic zentroan gaur ikuskizun egongo den lanak, gizakia eta naturaren arteko erlazioaren inguruko hausnarketa bat egitea du helburuen artean.

*Azeriaren alegia* lantzerakoan, edertasun plastikoan eta irudien indarrean oinarritu dira. Gauzak

horrela, oso testu gutxi gelditu zaie. Hau da, «ikuskizun honetan hitz egiten duena irudia eta musika dira».

## Taldea

Los Titeres de Binefar txotxongilo antzerki talde bat da. 30 urte darमतate harantz eta honantz errepidean: Euskal Herrian, Espainian, Portugalen, Frantzian, Alemanian, Indian... ibili dira txotxongiloen ikuskizunekin.

## Orfeoiarekin abesteko aukera

**Tolosa** » Hilaren 23an Tolosako Ereserkia abestuko du Orfeoiak; herritarrek bat egiteko aukera edukiko dute.

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoiak, ekainaren 12an, kontzertua eskaini zuen Tolosako Santa Klara elizan. Gioacchino Rossiniren *Petite Messe Solenne* interpretatu zuen. Musika lan hori aipatu musikariak konpo-

satu zuen 71 urte zituela. Hain zuzen ere bere azken obra izan zen. Lau urte beranduago, egileak berak, orkestrazioa egin zuen.

Aipatzekoak dira, batetik, afintze iraunkorra -kualitate horiez da batere erraza lortzen obra honek duen konplexutasunarekin- eta bestetik, korden konpentsazio bikaina ebakera apartarekin. Nabaritzen da Ignacio Ruiz de Alegriak egindako lana horretan eta lau solisten jardunean, fugetarako ahontsen konjuntzioan.

Berriro ere eskerrak eman be-

har dizkiogu Tolosako Orfeoiari, «mota honetako obrek in disfrutatzeko aukera ematen digulako».

Ekainaren 23an, asteazkenean, ohiko *San Juan Zortzikoaz* gain, Tolosako Ereserkia abestuko dute -Herriaren 750. urteurrena zela eta, Kike Ugartek konposatua, Karlos Linazasororen letrarekin-, eta agertzen diren guztiak animatu nahi dituzte kantatza.

Ekitaldian partiturak banatuko dira. Dena den, orfeoiaren web orrian jaitsi daitezke partiturak ([www.tolosakoorfeoi.com](http://www.tolosakoorfeoi.com)).

## Tolosa kantari eta koadrilak bat eginik

ERREDAKZIOA

Hil honetako Tolosa Kantari kantu-jira herriko festen barruan egokitu da. Hain justu, San Joan jaietako Koadrilen Egunean, ekainaren 26an. Hilero bezala, 12:00 etan elkartuko dira kantu-jiran parte hartu nahi dutenak Tolosako Tontokalen. Ondoren Alde Zaharretik barrena ibiliko dira. Koadrilen Eguna dela eta, Plaza Berrian ekitaldi berezia egingo da koadrilekin batera. Horretarako kantu ezagun batzuk prestatu dituzte eta antolatzailak abesti horien letrak banatuko dituzte, inguratzen diren guzti-guztiak, inongo aitzakiarik

gabe, parte hartzeko aukera izan dezaten.

Kantu-jirak, beste behin ere, Amaro zoko Konponezinak txaragaren laguntza izango du. Azkenik, entseatu nahi duenak aukera izango du astearetan, hilaren 22an, beti bezala, Tolosako Musika Eskolan, 20:00etan.

## Zuzenketa

Atzoko TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkarian, kantu-jiraren inguruan afaria bat egingo zutela argitaratu genuen, baina ez da horrela izango. Datu hori oker zegoen.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Iritsi da suaren jaia

## ERREDAKZIOA

Asteazkenean San Joan suak piztuko dira eskualdeetako bazter gehienetan, baina Tolosan, herriko Jaia izaki, gaurtik aurrerako egitaraua prestatu du Udalak.

Gaur eta bihar kirol ekitaldiak izango dira nagusi herrian, nahiz

eta haurrek erraldoi eta buruhandien lehen kalejirekin gozatzeko aukera ere izango duten.

Ondoren, astelehen eta asteartean atsedean hartu ostean, asteazkenean hasiko dira berriz ere ekitaldiak. Jaien hasiera iragartzen duen suziria asteazkenean, hilak

23, 18:30ean botako dute udaletxeko balkoitik. Aipatzekoa da ere, ostiralean *Mokolo gau batez* kontzertua izango dela Desordutan, Deabruak Teilatuetan, Bonberenea Txaranga, Hodeiertz abesbatza, Manent eta Bide Ertzean taldeenekin.



lazio San Joan eguneko irudia. N. LATABURU

## » EGITARAUA

### Gaur, ekainak 19

- **09:00.** Goiz guztian, Sanjoanetako aparteko azoka.
- **Goizean zehar.** 09:00etan Gerrikoko Arbola eta 15:30ean San Frantzisko pasealekuan kale saski-baloia (3 x 3), XI. San Joan Saria.
- **09:00.** Graffiti erakusketa.
- **10:00.** Beotibar pilotalekuan, Tolosako Beotibar Zesta Punta Eskolak antolatuta, XIX. San Joan Zesta-Punta Txapelketa.
- **10:00.** Usabal kiroldegian, igeriketa probak, XLI. San Joan Saria.
- **10:30.** GiroArte dultzaina taldea kalez kale ibiliko da, herria doinuaz alaitzen.
- **11:45.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.
- **12:00.** Ederne Pasaban Tolosako Alaba Kuttuna izendatzeko ekitaldia udaletxeko batzar aretoan.
- **18:00.** San Frantzisko pasealekuan Txirindulari Kriteriuma, *Jose Manuel Ansorena XIV. Memoriala*, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta. Emakumezko, kadete, gazte eta afizionatu mailako txirindulariek hartuko dute parte.
- **18:00.** Usabal kiroldegian, San Joan eskubalo sariko finalak.

### Bihar, ekainak 20

- **09:00.** Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.
- **10:00.** Xake-Jokoa, Kultur Etxean, Tolosako Xake Elkarteak antolatuta XXXVII. Nazioarteko Lehiaketa taldea, XXXIV. Enrique Pine-da Memoriala.
- **12:00.** Oria ibaian batel estropadak (saikapen probak).
- **12:30.** Usabal kiroldegian kimu futbolaren Topaketen finalak. Tolosa C.F.-k antolatuta.

### Asteazkena, ekainak 23

- **10:30.** Euskal Herria plazarako Iurriza Jubilatuta eta Pensionisten Elkartearen Mus Txapelketa.

- **17:00.** Txistularien kalejira antzinako erronda bidetik barrera.
- **18:30.** Suziria, Udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.
- **18:30.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.
- **19:30.** Zerkausian bertso jaialdia: Aitor Mendiluze, Amaia Agirre, Bixente Gorostidi, Mikel Artoia, Anjel Mari Peñagarikano eta Jokin Sorozabal. Gai-jartzailea: Iker Iriarte.
- **19:30.** Udalbatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.
- **20:00.** Berdura plazan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua.
- **22:00.** San Joan sua, Andre Maria plazan, Udalbatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. *San Joan zortzikoa* jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian Tolosako Orfeoia kantatuko du.
- **23:30.** Plaza Berrian Switch eta Seiren musika taldeen emanaldia.

### Osteguna, ekainak 24

- **07:00.** Alkate Soinau Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.
- **08:30.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.
- **08:45.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.
- **09:00.** Diana, GiroArte dultzaina taldearekin.
- **09:00.** Txirindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXVII. Jose M<sup>a</sup> Anza Memoriala, Oriako Txirindulari Eskolak antolatuta.
- **09:30.** Plaza Zaharrean Eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru mili-

- zien oroimenez, Udalbatza buru dela.
  - **10:00.** Meza Nagusia Andre Maria parrokian. Santa Maria Kaperak parte hartuko du. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udalbatzak, kofradiak, Tolosako bordondantzariek eta erraldoiek; aldi berean, elkarteetako eskopetariak ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan. Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Euskal Herria plazan bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.
  - **11:45.** Txirindulariak (amaiera): XXXVII. Jose M<sup>a</sup> Anza memoriala.
  - **12:00.** Oria ibaian batel estropadak (finalak).
  - **13:00.** Kontzertua, Berdura Plazan, Tolosako Musika Bandarekin eta Tolosa eta Iruñeko udal txistulariekin.
  - **16:45.** Udalbatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Andre Maria eliza nagusiko bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzen, Udalbatza, bordondantzariek, txistulariak, Musika Banda eta eskopetariaren konpainiak Trianguloan bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, ohiturazko aureskua dantzatuko da bertan.
  - **19:30 eta 23:30.** Jones Brothers txaranga kalez kale ibiliko da.
  - **23:00.** Su festak, 1. bilduma: Pirotecnia Zaragozana.
  - **23:30.** Euskal Herria plazan kontzertua: Ilê Aiyê (euria eginez gero, Leidorren).
- Ostirala, ekainak 25**
- **10:30.** Plaza Berrian Sokamuturra.
  - **11:00.** Goizez eta arratsaldez (11:00-13:30 eta 16:00-19:30),

- haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki...
- **11:00.** San Frantzisko pasealekuan, Tolosako Harizpe Elkarteak antolatuta, Toka Lehiaketa.
- **18:00.** Trianguloan *Hipo eta Tomax* haur ikuskizuna.
- **18:30.** Tolosako margolarien XLIV. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta Elkartearen (zabalik ekainaren 27a arte).
- **19:30.** Usabal kiroldegian, koadrilen arteko Tolosa Kup areto futbol txapelketako finalak (19:30ean 3. eta 4. postuak eta 20:30ean finalak).
- **20:30.** Hodei Truk abesbatzaren kontzertua Berdura plazan.
- **22:30.** Euskal Herria plazan *Mokolo gau batez* kontzertua: Desordutan, Deabruak Teilatuetan, Bonberenea Txaranga, Hodeiertz abesbatza, Manent eta Bide Ertzean (euria eginez gero, Leidorren).


### Larunbata, ekainak 26

- **10:00.** Beotibar pilotalekuan Tolosaldeko eta Leitzaaldeko Hitza VI. esku pilota txapelketaren finalak.
- **11:00.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako dultzaineroekin. Irteera Plaza Zaharretik.
- **11:30.** Bonberenea Txaranga kalez kale ibiliko da.
- **12:00.** Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Berrian. Egun osoan: haimaketakoa, jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia, eta abar. Eguna alaitzen txaranga eta dultzaineroak eta Tolosa Kantari taldea arituko dira.
- **14:00.** Euskal Herria Plazan, koadrilen herri bazkaria. Ondoren Jo ta hanka musika taldearen emanaldia.
- **12:00.** Berazubini, tenisa. San Joan Sariaren finalak
- **18:00.** Sortzez Garbia plazan *Azkona Taldea* haur ikuskizuna.

- **18:00.** Trianguloan Herri Kirol saioa: Mindegia, Senosiain, Azurmendi eta Otaño aizkolariak; Izeta II eta Izeta IV harrijasotzaileak; eta, Ibarro emakumezko sokatira taldeak.
- **19:00.** Plaza Berrian Xanpetikidantza eta Larrain-dantza.
- **19:00.** Berdura plazan, Sagardo Eguna. Antolatzailea, Batasuna Elkarteak.
- **19:00.** Iraunkorrak Txaranga eta Mulambo perkusio taldea kalez kale ibiliko dira, herria doinuaz alaitzen.
- **19:30.** Mariachi Garibaldi taldearen kalejira.
- **23:00.** Su festak, 2. bilduma: Astondoa Pirotecnia.
- **23:30.** Plaza Berrian Inde Kitxen eta Devon musika taldeen kontzertua, ondoren DJ Black.
- **23:30.** Trianguloan kontzertua: Mariachi Garibaldi taldearen eskutik.

### Igandea, ekainak 27

- **Egun guztian zehar.** Herri Musika Tresnen Topaketa. Dultzaineroak, txalapartariak, albokariak eta trikitilariak kalez kale ibiliko dira, herria doinuaz alaitzen.
- **10:30.** Zezen plazan xexentxoak eta zalditxoak haurrentzat.
- **11:00.** Goizez eta arratsaldez (11:00-13:30 eta 16:00-19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki...
- **12:30.** Usabal kiroldegian areto futbol haurrentzat Arsenal Elkarteak antolatuta (finalak).
- **18:00.** Euskal Herria plazan *Rezi-kletas* haur ikuskizuna. Laguntzaileak: Topic eta Euskal Herria plazarako tabernariak.
- **18:00.** Zezen-plazan, zezen-errekortarien V. Lehiaketa adar-puntak moztu gabeko zezenekin.
- **20:00.** Mongo blues taldearen emanaldia Plaza berrian.



bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 91380 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

- Izen-abizenak: \_\_\_\_\_
- Lanbidea: \_\_\_\_\_
- Helbidea: \_\_\_\_\_
- P.K.: \_\_\_\_\_
- Posta elektronikoa: \_\_\_\_\_
- Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_
- N A : \_\_\_\_\_
- Jaioteguna: \_\_\_\_\_
- Herria: \_\_\_\_\_
- Tel.: \_\_\_\_\_

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babesteko, betetik, jakinarazten dituzte zure datu pertsonalak TOLOSALA HERRIA, HEDABIDEAK S.M.-ren hitza(ge) automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu dituen eskaintzen berri emateko. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezertzatzeko eta kontratu egiteko eskubideak erabiltzeko. Hala ere, nahiz izenez gero, idatzi behar du honetara: TOLOSALA HERRIA, HEDABIDEAK S.M., Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.net



# Ahokotasunaren inguruko gogoetak eta esperientziak Mintzolan

**Villabona** » Jardunaldia hiru egunetako izango da eta ahokotasuna landuko dute euskal kulturako zenbait aditurekin.

## AGURTZANE BELAUNZARAN

Mintzola Fundazioak eta Bertsozale Elkartek elkarlanean antolatu dute jardunaldi hau. Uztailaren 22tik 24ra ahokotasuna landuko dute, Mintzolan bertan. *Ahoa bete hots* izena eman dioten jardunaldian, ahokotasuna hiru eremutara mugatuko dute; kulturara, eguneroko jardun berezietara eta haurren mundura. Euskal kulturaren, arlo ezberdinetan ezagunak diren adituek hartuko dute parte. Jardunaldiaren helburua, ahokotasunaren inguruko gaiez eginko gogoetak bildu eta esperientziak jasotzea da, etorkizunera begirako gakoak zeintzuk izan daitezkeen ikusteko.

Jardunaldia publiko zabalari dago irekia: irakasle, kazetari, aurkezle, bertsolari, ipuin kontalari, antzezle, euskara teknikari eta oro har ahokotasunaren interesa duen orori. Matrikulatze epea uztailaren 16an itxiko da. Interesatuak, [administrazioa@bertsozale.com](mailto:administrazioa@bertsozale.com) helbidera idatzi edo 943694129 telefonora deitu behar dute. Matrikulako prezioa 50 euro da, ikasle, langabetu eta Bertsozale elkarte koentzat aldiz 35 euro. Ikastaroan parte hartzeagatik EHUk kreditu bat emango du.



Beñat Gaztelumendi bertsolaria eta Josune Zabala Mintzola Fundazioko zuzendaria jardunaldiaren aurkezpenean. A.B.

## » AHOA BETE HOTS JARDUNALDIKO EGITARUA

### Uztailak 22, osteguna

- **09:00etan.** *Eskara la kakatua?* Ahokotasuna eta aditasuna. Jose Ignazio Ansorena.
- **10:00etan.** *Ahokotasunetik, haurrentzako sorkuntza konkretu bat: Inaxito.* Bertsolaritza eta antzerkia uztartuz. Gorka Tolosa
- **11:00etan.** *Zertaz ari gara ipuie-taz ari garenean.* Itziar Rekalde.
- **12:30ean.** *Mahai ingurua:* Jose Ignazio Ansorena, Gorka Tolosa eta Itziar Rekalde. Moderatzailea: Xabier Sukia.

### Uztailak 23, ostirala

- **09:00etan.** *Ahokotasuna hezkuntzan: ahokotasuna lantzeko materialak garatzea.* Miren Ibarluzea.
- **10:00etan.** *Ahokotasuna eta literatura.* Joan Kruz Igerabide.
- **11:00etan.** *Hik nola esango hukek/n?* Julain Beloki.
- **12:30ean.** *Mahai ingurua:* Miren Ibarluzea, Joan Kruz Igerabide eta Julian Beloki. Moderatzaile lanetan, Laxaro Azkue irratia esataria ariko da.

### Uztailak 24, larunbata

- **09:00etan.** *Zer da Euskal antzerkia?* Antton Luku.
- **10:00etan.** *Modernitatearen hastapenak.* 60. ko hamarkadako kultur garapena. Joan Kruz Igerabide.
- **11:00etan.** *Nola egiten dugun hurrek nolakoak garen esaten baitu.* Lorea Agirre.
- **12:30ean.** *Mahai ingurua:* Jose Angel Irigarai, Antton Luku eta Lorea Agirre. Moderatzaile lanetan, Joxean Agirre.

## Laburrak

### III. Frontenis Txapelketa gaur hasiko da

**BALIARRAIN** » Gaur 08:30etan hasi eta 22:00ak bitartean, Baliarraingo frontoian, pilotakadek ez dute etenik izango. 52 gizonetako buruz burukoan lehiatuko dira eta 8 emakumek binakakoan neurtuko dituzte indarrak. Igandean jarraituko du txapelketa eta datorren aste bukaeran finalerako txartelak jokoan izango dira. Ekainaren 27an, igandean 16:00tatik aurrera, gizonetako eta emakumeen arteko finalak jokatuko dira.

### Herri Eskolakoen kurtso amaierako festa

**IKAZTEGIETA** » Guraso eta eskolako ikasleek badute non gozatua gaur herrian. Pilotalekuan da lehenengo hitzordua, 11:00etan pilota partiduekin emango baitiote hasiera festari. Wushu eta dantza emaldiarekin jarraituko dute eguerdira bitartean. Bazkariarekin indarrak hartu eta puzgarri, herri kirol eta futbol partiden txanda izango da.

### Paella jaterako txartelak salgai herriko tabernetan

**ALBITZUR** » Uztailaren 3an herritarak paellaren bueltan elkartuko dira. Herri Eskolako Bixkor guraso elkarteak antolatu du eguna eta bazkariako txartelak herriko tabernetan daude ekainaren 30a bitartean. 12 urte bitarteko haurrek, bost euro ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 15 euro. Bazkariaren ostean karoakea eta guraso eta haurren arteko jokoak egingo dira.



## Turismo gunea zabalik dago

**ABALTZISKETA** » Larraitzeko baselizaren atzean dago Turismoko informazio gunea. Hemendik aurrera bertan, Euskal Herriko produktuak ere salgai izango dira: gazta, sagardoa, txakolina, Tolosako babarruna, Ibarrrako langostinoak... Alboan, Mariren parkea dago, zuhaitzetik zuhaitzera kirol aktibitateak egiteko gu-

nea. Uda gerturatzan ari dela eta atzo inauguratu eta bedeinkatu zituzten bi guneak. Ekitaldian jende ugari bildu zen, hauen artean, Jexux Mari Gorostidi Abaltzisketako alkatea, Rafa Uribarren Landa Garapeneko zuzendaria eta Iñaki Ugarteburu, Diputazioko Kirol zuzendaria besteak beste. **A.BELAUNZARAN**

Eskuratu liburua  
**ekainaren 30a**  
bitartean  
**12 euro**ren  
truke.

BERRIaren  
harpidedunentzat  
**eskaintza**  
**berezia:**  
**6 €**

**Amesgaiztoa**  
Egunkaria atziko epaiketaren kronika

Pello Herreru | **berria**

Egin eskaera eta etxean jasoko duzu  
[www.berria.info](http://www.berria.info)  
harpidetza@berria.info  
943-30 43 45

AUKERA EZAZU,  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**



Pasa den astean Andazarrate eta Aia bisitatu ostean oraingoa Larraitzera joango gara eta 40 km inguruko ibilbidea proposatuko dizuegu.

# Larraitzeko buelta

JOXEMI SAIZAR

**B**igarren txango honetarako Tolosaldeak harreman handia duen eskualdea aukeratu dugu: Goierri. Eskualde horretako hainbat herri ezagutuko aukera izango dugu. Gainera, bi eskualdeek konpartitzen duten mendate ezaguna izango da helburu: Larraitz. Tolosatik abiatuta (udaletxea hartzen da beti abiapuntu gida kilometroak kontatze-ko) berrogei kilometro dituen buelta honek, ez da, beraz, oso luzea.

Lehen kilometroak lauak eta lasaiak dira, N-1 zaharraren ondoan doan bidegorritik egiteko modukoak, eta ia izko ibilaldietan ezagutu genituen Alegia eta Ikaztegieta pasatuz. Hor bukatzen da Tolosaldea eta Goierri hasten da. Ibilbideak nahiko zelai jarraitzen du. Legorreta dugu Goierriko lehen herria. Korpus festak pasatu dira, baina beti bada zer ikusi herri honetan.

San Salbador eliza (XVI. mendea), mende bereko Zubi Zaharra eta udaletxean Koldobika Jauregiaren *Baserriaren barneko zuhaitza*

eskultura, adibidez. Ondoren, lautadan jarraituz, Itsasondo herria dator. Jasokundeko eliza ikusi daiteke bertan. Herriaren izenari ohore ginez, Nautico izeneko taberna-jatetxea ere badutela aipatu behar.

Jarraian Ordizia dator, asteazkenorako azokarekin Tolosari

**Lehen kilometroak lauak eta lasaiak dira, N-1 zaharraren ondoan doan bidegorritik egitekoak**

lehia egiten dion herria. Hemen ere Jasokundeko eliza dute, XIX. mendeko udaletxea azoka egiten den plazan bertan, Zabala, Barrena eta Abariako jauregiak, Muxikako dorretxea... Andres de Urdaneta itsasgizon ospetsuaren jaioterria ere bada. Historia, ondare eta bizitasun handiko herria da eta bitartez merezi duena.

Hurrengo herriraino, Zaldibia, Iztueta bertsolariaren jaioterria, aldapa leuna dago. Santa Fe eliza eta udaletxea dira herriko monu-



Larraitzeko ermita. JOXEMI SAIZAR

mentu ikusgarrienak. Zaldibitik handik aurrera hasiko da Larraitzera igotzeko aldapa gogorra, txirrindulariek bere lasterketetan hainbeste aldiz igo dutena.

Larraitz puntu jendetsua izaten da urte garai honetan. Goierriko

eta Tolosaldeko jende asko biltzen duena, batez ere asteburuetan. Aralarko mendietarako sarbide nagusietako bat da eta atsedeneku aparta. Iaz, Guillermo Olmoren *Harrespila* eskultura multzoa jarri zuten, Enirio-Aralar mankomunitatearen herriak irudikatuz, bere 600. urteurrenean. Haurren-

**Larraitz Aralarko mendietarako sarbide nagusietako bat da eta atsedeneku aparta**

tzako jolas parkea ere ireki berria dute. Beraz, badu erakarpena. Laster gainera, San Pedro festak izango dira bertan.

Handik aurrera hasten da jaitziera. Aurrena leuna Abaltzisketaraino (Sanjoanak ospatuko dituzte laster), gero handiagoa Amezketaraino eta azkenik nahiko leuna Alegia eta Tolosaraino, lehen galdutako indarrak berreskuratzeko.



## Osasun zerbitzuen asteburuetako murrizketa salatu du ELAk

ERREDAKZIOA

ELA sindikatuak larunbatetan osasun zentroak ixtea salatu du, bere hitzetan «ixtearekin herritarrek osasun zerbitzua jasotzeko aukera eragotzi eta arretaren kalitatea murriztu egiten da» eta.

Horiek horrela, Osakidetzak abiarazi nahi duen Asteburu eta Jaiegunitarako Osasun-Zerbitzuak izeneko plana «ez da negoziatu ez langileekin ez eta beraien ordezkariekin ere», gogoratu du ELAk.

«PSE-ren iniziatiba den plan hau, ekainaren 9an aurkeztu zen Legebiltzarrean. Ez du gainontzeko partiduen babesik jaso hutsune handiak ikusi dizkiotelako. PSE bakarrik gelditu da. Presaka ibiltzeaz gainera, informazio gutxi ematen dute» gaineratu du.

**Villabonako zentroa**

Era berean, Osakidetzak Villabonako zentroarekin batera Lazkao, Ordizia, Legazpi, Oñati, Aretxabaleta, Arrasate, Deba eta Azpeitia-koak ixtea erabaki duela salatu du sindikatuak. «Honek zera esan nahi du: orain arte osasun zerbitzua bere herrian batz besta jasotzen zuten 14.500 pertsonen herri-kanpo aterabeharko dutelaz zerbitzu berdina jasotzeko. Gainera 5.700 haur sendagile pediatria baten atentziorik gabe geratuko dira, irekiak gelditzen diren zerbitzuak pediatriarik gabe geldituko direlako. Hauen ordez sendagile generalistak jardungo dira», salatu du.

«ELAk garbi du neurri hauekin arretaren kalitatea murriztu egiten dela eta horregatik eskatzen du larunbatetan osasun-zentroak ixteko erabakia bertan behera utz dezatela», esan du bukatzeko ELA sindikatuak.



**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN** agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



## Leitzelar inguruak garbi auzolanari esker

**LEITZA** ● Urtero gisa, 4.DBH mailako ikasleak, auzolana egin dute. Aurtengoan Leitzelarreko errepideko bazterrek eta erreka-zuloak garbitu zituzten, bertatik, bi kamioikada zabor bilduz. Jo eta su lanean 28 pertsonak hartu zuten parte eta garbitzeaz gain, mendietan zaborrak pilatzeak duen «arrisku eta kalteaz» ohartu ziren. Udaletxeak dei egiten du, «gure mendietan eta errekek txukun eta garbi mantentzeak duen garrantziaz ohar gaitzean». HITZA



## Magic Magoak aho zabalik utzi gaitu berriro

**BERASTEGI** ● Magic Magoak beste behin ere eskualdeko haurrak txundituta uztea lortu du. Oraingo honetan, Berastegikoak izan dira, Irurako mago honen abileziak ikusteko aukera izan dutenak. Atzo arratsaldean Guraso elkarteak antolatuta, 70 haur inguru elkartu ziren. Mago batek behin ere ez ditu bere sekretuak kontatzen, eta atzokoan ere, usoa nolatan ageriarazten zuten jakin gabe geratu ziren gaztetxoak. HITZA

## Otaolak adierazi du, «Euskal Herria eta politika uztea» erabaki duela

**Lizartza** » Datorren urtean, legealdia amaitzean joango dela azaldu du egunkari batean, Lizartzako alkateak.

### ERREDAKZIOA

Regina Otaola egungo Lizartzako alkateak *El Mundo* egunkarian egindako elkarrizketa batean adierazi duenaren arabera, politika eta Euskal Herria uztea erabaki du. Legealdia amaitzean, hau da, datorren urteko udaberriari, langabeteen zerrendan izena emango duela azaldu du.

Erabaki hau hartzeko arrazoien artean, Andoni Basagotirekin izandako desengainu pertsonalak aipatu zituen Alderdi Popularreko kideak. Bestalde Madrilen postu politikoa bat gordea duenaren baieztapena egitean, argitzen du, hau ez dela horrela, baina bestetik, badakiela, Euskal Herria ez duela lanik aurkituko, «markatuta» dagoelako. Gaineratzen du Otaolak, politika uzten duela, «azpizjoko» gehiago ez dituelako jasan nahi, eta izenak eman ez arren, dio, «baieztatuta duela, politikan lagunik ez dagoela».

Dena den, elkarrizketa horretan bertan gaineratzen zuten, Lizartzako ibilbidea errepikatuko lukeela, eta ziurrenik, hurrengo hauteskundeetan, oraingo bere zerrendakide bat izango dela zerrendaburu. Baina garbi uzten du ere, berak ez duela parte hartuko horrelako erabakietan.

## Iparraldeko jokoak eta sokatira, asteburuan

**Kirolak** » Lur gaineko Euskadiko Txapelketako 640 kilokoetan, azken saioa jokatu du bihar arratsaldean Aresok.

### ERREDAKZIOA

Lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketan, 640 kiloko azken jardunaldia jokatu du bihar. Aian, herriaren sarreran, jubilatuen egoitzaren parean, apar-kalekutik hurbil izango da saioa, 11:30etik aurrera.

Goiherri A taldeak jantzi dezake aurtengo lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketako lehen txapela. Izan ere, 640 kiloko hirugarren eta azken jardunaldia jokatu da, eta Erandioko taldeak alde erabakigarri samarra dauka Mutrikurekiko, bi puntukoa hain justu ere. Areso, Mutrikuren atzetik, hirugarren da sailkapenean, 7,5 punturekin, gipuzkoarrak baino 2,5 puntu gutxiagorekin. Sailkapeneko buruak berriz, Goiherri, 12 ditu.

Goiherri A taldeak jokaturiko bi jardunaldietako tiraldi guztiak irabazi ditu, eta 680 kiloko txapelketako arantza ateratzeko aukera ezin hobea du. Gainera, eutsi egingo lioke iaiz lortutako txapelari, igandean, Aian.

Honen aurretik 680 kiloko txapelketa jokatu zen eta hura Laukizko Gaztedik bereganatu zuen. Bestalde, 640koaren atzetik, 600 kilo artekoen lehia jokatu da. Lehendabiziko jardunaldia Loium (Bizkaia) jokatu da, eta bertan

ere Areso ikusteko aukera izango da.

**Sokatira aurretik, harri apustua**  
Honez gain, Aian bertan, gaur, giza probalarien eta harri-jasotzaileen arteko apustua jokatu da, 22:00etan. Hain justu ere, Joxerramon Iruretagoiena Izeta II.a harri-jasotzailea, eta, Aia, Asteasu, Amasa eta inguruko kirolariez osaturiko taldea lehiatuko dira.

### Leitzar bat, Iparraldeko Joku Torneoan

Iparraldeko Joku Torneoaren bigarren jardunaldia jokatu da gaur, Betelun 19:00etan. Iparraldeko Jokuen barruan 7 modalitate desberdin sartzen dira: Lokotx biltzea, ingude altxatzea, txinga erute, harrijasotzea, lasto altxatzea, orga joko eta zaku lasterketa eta txapelketa hiru saioz osatua dago. Bi modalitateetan, harria jasotzen eta txingetan hain zuzen ere, leitzar bat ari da jokoan, Josetxo Urrutia.

Harriarekin ondorengo lana egin beharko du: 125 kiloko zilindroari minutu batean ahalik eta altxaldi gehien eman, berdin, 112,5 kiloko kubikoari eta azkenik, 100 kiloko bolari. Lehendabizikoan bera geratu zen aurrena, 3.837,5 kilo altxata (zilindroari 13 altxaldi, kubikoari 9 eta bolari 12). Hemen, Hiru jardunaldietan jasotako kiloko batuko dira. Txingetan berriz, 40 kilokoekin ibili beharko du lasterka. Aurreko saioan, zazpi plaza egitea lortu zuen eskualdekoak, alde handia atera ziolarik aurkariak, 13 plazarekin.

## Bideak eta udal eraikinak garbitzeko, lehiaketa

**Ibarra** » Gastuak murrizteko, bi lehiaketa deitu ditu Udalak, kale eta eraikin publikoen garbiketa zerbitzua esleitzeko.

### ERREDAKZIOA

Ibarra Udalak bi lehiaketa deitu ditu herriko bideen eta udal eraikinen garbiketa zerbitzua esleitzeko. Kaleak baldintza higienikoetan mantentzeko lanetarako, urteko 140.000 eurokoa da onartutako aurrekontua. Udal eraikinen garbiketa esleitzen zaion enpresak, bere aldetik, ez du gainditu behar-ko orduko 22,50 euroko prezioa.

## Laburrak

### San Joan bezperan, herri afaria egingo dute plazan

**LEABURU-TXARAMA** ● San Joan bezpera ospatzeko, hilaren 23an herri afaria egingo dute Txaramako plazan. Txaramako festa batzordeak antolatuta, 20:00etan izango da hau, eta ondoren, 22:00ak inguruan sua egingo dute. Menua hurrengoak izango da: entsalada, sardinak, gazta eta irasagarra. Afarira joan nahi dutenek hilaren 21a baino lehen eman beharko dute izena, 943 67 13 33 (Jesus) edo 675 70 58 97 (Itziar) telefono zenbakietara deituta. Bestalde, antolatuzaileak, festetako blusa soinean dutela agertzeko deia luzatzen diete herritarrei.

### Etzitik, ikusgai izango dira kultur tailerretako lanak

**IBARRA** ● Etzitik aurrera Ibarra Kultur Etxean bertan egiten diren tailerretan, ikasleek gauzatutako artelanak ikusgai izango dira. Ikasurte guztian zehar aritu diren tailerretan egindako lanak. Aurtun antolatuta diren ikastaroetan ehun bat pertsonak hartu dute parte, eta beste beste, honako jarduerak egin dituzte: aretoko dantzak, sebillarrak, arropa konponketa, egur taila, ehoziriak, erreataurazioa, masajea, pintura, eskulanak eta makillajea. Datorren astean goizez eta arratsaldean izango da zabalik: 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebecka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezket, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Adinekoak eta jubilatuen

- **Alegia.** Jubilatuen urteko asanblada 11:30ean: 2009ko kontuen balantzea, urteko ekitaldiak, galdere-erreguak. Ondoren hamaiketako izango da.
- **Tolosa.** Jubilatu zaharrenei omenaldia: 11:30ean meza Jesusen Zerbitzarietan, ondoren hamaiketako Harizpe jubilatu elkartean eta 14:30ean bazkaria Fronton jabetxean.
- **Tolosa.** Adinekoen Astea lurremendi egoitza: 12:30ean 2009ko memoriaren aurkezpena, egoitzako funtzionamendua azaltzearekin batera; bukaera hamaiketako; 18:00etan meza, 90 urte bete dituzten egoilarrak omenduz.

### Antzerkia

- **Tolosa.** Titiros de Binefar taldeak *Azeriaren alegia* obra, euskaraz, Topic-en 18:00etan.

### Festak

- **Ibarra.** Gazte Festak: 11:30ean ume jolasak; 16:30ean altxorraren bila jokoa; 17:30ean tortilla eta txokolate jatea; 19:00etan Alurr eta Lizarrako dantza taldeen emanaldia; 23:00etan erromeria Laioz taldearekin eta tarlean Los del gas taldearen emanaldia.

### Kirola

- **Tolosa.** Tolosa Kup-eko finalerdietako partidak Usabal kiroldegian 16:00etan Uzturre eta Amets Taberna eta 17:00etan 30 Xentimo eta Celtic Powers.
- **Villabona.** Neska txirindularien Villabona-Zizurkil VI. Sari Nagusia 10:00etan.

### Kultur Asteak

- **Hernialde.** Asteburu kulturala: 12:30ean herri kirol emanaldia, Jose Mari Olasagastirekin, eta 14:00etan Asto jatea frontoian trikitilariekin.


### Zinema

- **Tolosa.** Leidor aretoan: 17:00etan, *La ultima cancion* gazte-txontzako filma; 19:30ean, *La nana* filma; eta 22:30ean, *Que se muera los feos* filma.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.



Beharrezko material guztia hartu eta euren hormarekin lanean hasi ziren lehiaketari ekin bezain laster. I.T.

Tolosa Beantatz Graffiti eta Mural Lehiaketa ari dira egiten lehen aldiz, GKO galeriak antolatuta; atzo hasi ziren paretak margotzen, eta gaur arratsaldean emango dituzte irabazleen izenak jakitera.

# Hasi da graffitilarien arteko lehia


### ERREDAKZIOA

**A**rteaz jantzita. Horrela egongo dira asteburu honen ostean herriko hainbat horma. Irudi koloretsuak edo kolore urrikoak, errealek diruditegak ala guztiz abstraktuak... azken batean, artelanez josiko dituzte herriko 30 horma inguru, GKO galeriakoek antolatutako Tolosa Beantatz Lehenengo Graffiti eta Mural Lehiaketan.

Aurreko egunetan horma horiek prestatzen aritu ostean, atzo 16:00ak zirenean ekin zioten artistek paretak pintatzeari, eta gaur 18:00etarako amaituta izan behar du euren lana. Eguraldi kaxkarrarekin, baina gogotsu hasi zi-

ren sprayei eta gainerakoei eragiten. 30 taldetan ari dira denera lehiaketan, eta tartean diziplina honetan sona handia duten artistak, bertakoak nahiz kanpotik etorriak. Nahi duten teknika erabili ahal dute, baina, hori bai, suarekin zerikusia duten lana egin behar du.

Irabazleen izenak 19:00etan emango dituzte jakitera, Plaza Zaharrean. Iñaki Epelde margolaria, Nerea Cereceda Tolosako Udaleko gazteria teknikaria, Josebe Iturrioz Tolosako Udaleko berdintasun teknikaria, Old School-eko Mari Garcia eta Iñigo Royo argazkilaria osaturiko epaimahaiak du horiek erabakitzeko ardura.



Herriko 30 horma ari dira erabiltzen margotzeko. Irudian, zezen-plazan. I.T.



## IBARRAKO UZZURPE IKASTOLAK

Bi langile behar ditu 10-11 ikasturterako

- Lehen Hezkuntzarako irakaslea ingelera espezialitatearekin
- Curriculumak bidali "LH ingelera 10-11" zehatzuz
- Zientzietan lizenziatua
- Curriculumak bidali "DBH 10-11" zehatzuz

Curriculumajatzeko epea: **ekainaren 22a**

Tf.: 943 671 299 E-maila: [ibarra@ikastola.net](mailto:ibarra@ikastola.net)

## TOLOSAKO LASKORAIN IKASTOLAK LANGILE HAU BEHAR DU



Magisteritzan diplomaduna Atzerriko Hizkuntzan  
Haur Hezkuntzako teknikaria  
Magisteritzan diplomaduna Haur Hezkuntzan  
ordezkapenak egiteko

Derrigorrezkoa: EGA titulua  
Curriculumak e-mailez bidali behar dira  
[tolosa@ikastola.net](mailto:tolosa@ikastola.net) helbidera.  
Jasoko diren azken eguna, ekainaren 25a.